

**Derioko Udalaren 2020ko urriaren 9ko 357-2020 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, kirolarien bidaiak eta dietak lehia lehiakorragatik emateko deialdia onartu zen.**

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Diru-laguntzaren xede den kirol-denboraldi bakoitzaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen Derion erroldatutako edozein pertsona fisikok jaso ahal izango du laguntza hau, baldin eta, aplikatzeko den araudian ezarritako baldintzez gain, diru-laguntzaren xede den lehiaketan parte hartu izana egiaztatzeko baldintza betetzen badu.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua da EAETik kanpo lehiaketa federatuko bidaiak eta dietak egiteak Derion erroldatutako pertsonen eragiten dizkien gastuak finantzatzea, Derioko kirolarien artean kirol-jarduera federatua sustatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko urriaren 9an argitaratutako oinarriak.

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2018/10/09/II-4151\\_eus.pdf](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/10/09/II-4151_eus.pdf)

Laugarrena. Zenbatekoa:

2020ko ekitaldirako laguntza hauetarako diru-zuzkidura 2.570 eurokoa izango da gehienez, eta laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren % 50 izango da, kirolari bakoitzeko 400 euroko gehieneko mugarekin, aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren mugaraino. Eskaera gehiegi egoteagatik aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa % 50 hori estaltzeko, banatu egingo da onuradun bakoitzak benetan justifikatutako gastuaren ehuneko bera jaso dezan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko urriaren 13tik 30era izango da.

Derio, 2020ko urriaren 9a

Alkatea, Esther Apraiz